Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko irailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko irailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.692 izan da, abuztuan baino 1.014 gehiago eta joan den urteko irailean baino 291 gehiago. Egunean bataz bestez 80 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 48 eskaintza gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko irailean 182 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 740 Gipuzkoan eta 770 Bizkaian. Lan-eskaintzen %45,5 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 43,7 Gipuzkoan eta % 10,8 Araban.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 95,7 hazi dira eskaintzak (89 eskaintza gehiago), Gipuzkoan % 118,3 hazi dira (401 eskaintza gutxiago) eta Bizkaian % 213 hazi dira (524 eskaintza gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 30 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 14,2ko murrizketa; Bizkaian eskaintza kopurua 118 eskaintzetan hazi da, % 18,1ko hazkundea, eta azkenik, Gipuzkoan 203 eskaintza gehiago izan dira, % 37,8ko hazkundea.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 5 eskaintzetik 1 zientzia teknikarientzat erregistratu da (363 eskaintza); industriako lanbide-profilak jarraitzen dio (312 eskaintza). Zerbitzuetako, laguntzako teknikarien eta ez-kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 309, 263 eta 182 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak (14) eta lehen sektorekoak izan dira (12).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, gehien hazi diren eskaintzak, bai kopuru absolutuetan bai erlatiboetan, zientzia teknikarienak (+279 eskaintza, % 332,1eko hazkundea) eta industriako profilekoak (216 eskaintza gehiago, % 225eko hazkundea) izan dira.

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien hazi direnak kopuru absolutuetan, industria profilekoak izan dira (66 eskaintza gehiago, %26,8ko hazkundea). Kopuru erlatiboetan, aldiz, lehen sektorekoak izan dira (% 140ko hazkundea, 7 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako lan-eskaintzen % 11,7k kontratu mugagabea eskaini dute; % 87,2k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 1,1ek, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 198 izan dira, 113 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz, % 132,9ko hazlundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 885 hazi dira: 1.476 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 149,8koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko irailean 18 izan dira, aurreko hilean baino 16 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 4 gehiago erregistratu dira (% 2,1 gehiago), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 22,5 hazi dira, 271 eskaintza gehiago eta merkataritzako kontratuen eskaintza 16 gehiago izan dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2019ko irailean erregistratutako lan-eskaintzen %77 (1.303 eskaintza) 0 tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 13,1ek (221) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 2ko eta % 0,3ko pisua dute, hurrenez- hurren (34 eta 5 eskaintza guztira).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (807 eskaintza gehiago, % 162,7ko hazkundea).Balio erlatiboetan 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenak izan dira hazkunde handiena jasan dutenak (% 400eko hazkundea, 4 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: hazi diren eskaintza bakarrak 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (339 eskaintza gehiago, % 35,2ko hazkundea). Gehien murriztu diren eskaintza motak, kopuru absolutuetan, 1 eta 3 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (31 eskaintza gutxiago, % 19,4ko murrizketa); kopuru erlatiboetan, aldiz, 3 eta 5 urte bitarteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (% 21eko murrizketa, 9 eskaintza gutxiago).

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 13,4k zehazten du datu hori (1.692 eskaintzetatik 226). 226 eskaintza horietatik, 159 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 67k lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 64 gehiago erregistratu dira abuztuarekin alderatuz, hau da, % 67,4ko hazkundea. Lanaldi partzialeko eskaintzak 41 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 157,7koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintza 55 gutxiago izan dira (% 25,7ko murrizketa), lanaldi partzialekoen kasuan, aldiz, 16 eskaintza gutxiago erregistratu da (% 19,3ko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko iraila, 2019ko abuztua eta 2019ko iraila), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2019ko irailean izan zen, % 29,6ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien artean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 0,4 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.692 eskaintzetatik 7 soilik. Aurreko hilean 6 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 84,2k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.692 eskaintzetatik 268k soilik zehaztu dute.



268 eskaintza horietatik, 106k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 39,6k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 96 eskaintza (% 35,8). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 45 eskaintzekin (% 16,8). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 21 eskaintzekin, eta % 7,8ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 268 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago irailean lan-eskaintza gehiagotan zehaztu dela prestakuntza maila, abuztuan baino (262 eskaintza irailean; 83 abuztuan), eta hauen pisua eskaintza guztien artean ere handiagoa izan da (% 15,8 irailean eta % 12,2 abuztuan).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. LHko ikasketak eta unibertsitatekoak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak kopuru absolutuetan, 71 eskaintza gehiago bi kasuetan (% 202,9ko eta % 284ko hazkundea, hurrenez hurren); balio erlatibotan, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak (%600ko hazkundea, 18 eskaintza gehiago).

2018ko irailarekin alderatuz, gehien hazi diren eskaintzak, kopuru absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (21 eskaintza gehiago); kopuru erlatiboetan, aldiz, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 75eko hazkundea).

- ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak manufaktura-industria, administrazio publikoa eta merkataritza izan dira, eskaintzen % 16,3ko, % 12,2ko, eta azken biak % 10,8ko pisuarekin, hurrenez- hurren (276,207 eta 183 lan-eskaintza azken bi jardueretan, 1.692 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintzak, kopuru absolutuetan, manufaktura-industriakoak izan dira (203 eskaintza gehiago, %278,1eko hazkundea). Finantza-jardueretako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak kopuru erlatiboetan (% 566,7ko hazkundea, 17 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, behera gehien egin dutenak, kopuru absolutuetan, merkataritzakoak izan dira (-22); kopuru erlatiboetan, aldiz, ur-horniketakoak izan dira (-% 66,7). Bestalde, administrazio publikokoak izan dira gehien hazi direnak, bai kopuru absolutuetan, bai erlatiboetan ere (152 eskaintza gehiago, % 276,4ko hazkundea).